

Erref.- FMR / Legelari aholkularia

Proposamena: Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Giza Baliabideen Zuzendariordetza

GAIA.- 2023. URTERAKO BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEKO (GUFÉ) ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA ONESTEKO ERABAKIAREN PROPOSAMENA.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikulua zehazten du aurrekontu-esleipena duten postuak betetzeko langileak behar direnean, postuok ezin direlako bete administrazio bakoitzean dauden giza baliabideekin, enplegu publikoaren eskaintza egin beharko dutela euskal administrazio publikoek eta haien mendeko entitateek, edo antzeko beste edozein kudeaketa-tresna erabili, langileen ordezkartzearekin negoziatu ondoren. Legezko testu berak xedatzen du enplegu publikoaren eskaintzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren kasuan, eta dagokion lurralde historikoaren aldizkari ofizialean, foru- eta toki-administrazioen kasuan. Administrazio bakoitzaren egoitza elektronikoan ere argitaratuko dira.

2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legeak 20. artikuluan arautzen du langileen beharrak betetzeko enplegu publikoaren eskaintza edo antzeko kudeaketa-tresna. Hala, batetik laura bitarteko apartatuak oinarritukoak dira, Konstituzioaren 149.1.13.a eta 156.1 artikuluen babesean, 9 apartatuan ohartarazten duenaren ildotik. Hala, lehenengo apartatuak, lehen ordinalean, aipatzen du sektore publikoan harreman mugagabearekin langile berriak sartzeko enplegu publikoaren eskaintza egingo dela. Enplegu publikoaren eskaintzari dagokion konfigurazio zehatza langileen birjartze-tasaren bidez gauzatuko da. Tresna horri esker, plangintza definitzen da, eta langile-kopuruaren arabera egungo langileekiko dimentsioa ematen zaio. Gainera, artikulua honetan dauden gainerako neurriei erreparatu behar zaie.

Bigarren apartatuan dio langileen birjartze-tasaren arabera antolatuko dela. Lehentasunezko sektoreetan tasa hori ehuneko 120koa da eta gainerakoetan ehuneko 110koa. Edonola ere, eskaintza gastuen aurrekontuaren I. kapituluko aurrekontuko diru-baliabideen arabera egin beharko da.

Bi.3) apartatuan erabazten da birjartze-tasarako lehentasunezko sektoretzat jotzen direla, besteak beste, Ñ azpiapartatuan sartutakoak, hain zuzen ere, gizarte-zerbitzuen eta garraio publikoaren zerbitzuen arloan herritarrei zuzeneko laguntza ematen dieten langileen plazak eta segurtasun- eta larrialdi-plazak, zerbitzu publikoetan herritarren arretarekin lotutakoak eta enpleguaren arloan prestazio eta politika aktiboak kudeatzearekin zerikusia dutenak.

Langileen birjartze-tasa kalkulatzeko, hirugarren apartatuak ohartarazten du baimendutako gehieneko ehuneko bi hauen arteko aldeari aplikatuko zaiola: aurreko aurrekontu-ekitaldian zerbitzuak emateari utzi dioten langile finkoen kopurua, batetik, eta aipatutako ekitaldian dena



delako arrazoiagatik sartu diren langile finkoen kopurua, bestetik; hiru.4 apartatuko egoerak edo lanpostuak erreserbatzea ez dakarten egoeretatik itzuli direnak kontuan hartu gabe, betiere.

Ondore horietarako, honako arrazoi hauek direla-eta sortutako lanpostu-uzteak konputatuko dira: jubilazioa, erretiroa, heriotza, uko egitea, lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-egoeran deklaratzeko, karrerako funtzionarioaren izaera galtzea edo lan-kontratua amaitzea, edota lanpostua erreserbatzea edo lanpostua uzten den administrazioaren aldetik ordainsariak jasotzea ez dakarren beste edozein administrazio-egoera.

Era berean, beste administrazio publiko batzuekin izandako lekualdaketa-lehiaketan ondoriozko altak eta bajak kontuan hartuko dira, bai eta dagokion sektorean lehendik harreman finkoa eta mugagabea duten langileen mugikortasunari dagokionez, artikuluko honetako sei.3 apartatua eta hogeita batgarren, hogeita bigarren eta hogeita hirugarren xedapen gehigarrien bat.3 apartatua xedatutakoaren ondorioz sortutakoak ere.

Aurreko zenbakiko arauen ondoriozko tasa jarduneko ekitaldian eskaintza onartu artera arte dauden altekin eta bajekin gehitu ahalko da. Hori eskaintzan bertan idatziz jasota geldituko da. Xede horrez, eskaintza ekitaldiko lehenengo sei hilekoan onartu beharko da. Plazak hurrengo ekitaldiko birjartze-tasari kenduko zaizkio.

Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 70. artikuluan arabera, baimendutako tasaren baliozkotasuna honako honen mende geldituko da: plazak sartzen diren enplegu publikoaren eskaintza administrazio publikoetako gobernu-organismoek onartu behar dute, eta probintziako, autonomia-erkidegoko edo estatuko aldizkari ofizialean argitaratu behar da, kasuan-kasuan, urtea amaitu aurretik. Horrez gain, plazen deialdia probintziako, autonomia erkidegoko edo, kasuan-kasuan, Estatuko aldizkari ofizialean argitaratuko da, eta gehienez hiru urtetan gauzatuko dela ziurtatuko da. Deialdia gauzatzean betetzen ez diren plazetarako deialdi berria egin ahal izango da, baldin eta baimentzen dituen enplegu publikoaren eskaintza argitaratu denetik hiru urte baino gehiago igaro ez badira. Deialdi berriak aurreko deialdietatik datozen plazak identifikatu beharko ditu eta zein eskaintzakoak diren azalduko du. Aurreikuspen hori 2023ko ekitaldia baino lehenagoko eskaintzen ondoriozko hautaketa-prozesuen deialdiei aplikatuko zaie, dagoeneko argitaratu direnei barne.

Birjartze-tasarako ez dira zenbatuko eta, ondorioz, kalkulatzeko ez dira aintzat hartuko, besteak beste, aurreko ekitaldietako enplegu publikoaren eskaintzetatik datozen langileak lanean hastearen ondorioz betetzen diren plazak; barne-sustapeneko plazak eta prozesu horien ondorioz dauden lanpostu-uzteak; lege-epaiak langile mugagabe ez-finko gisa deklaratu dituen plazak.

Modu berean, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikulua ezartzen du enplegu publikoaren eskaintza edo antzeko tresnarik onartuz gero, konprometitutako postu-zuzkidurak atera beharko direla deialdian, eta, hala badagokio, gehienez beste ehuneko hamar gehiago, eta kasuan kasuko hautaketa-prozeduren deialdia



egiteko gehieneko epea ere jarri beharko dela. Enplegu publikoaren eskaintzaren edo antzeko edozein tresnaren exekuzioa hiru urteko epean amaitu beharko da, deialdia onartzen den datatik kontatzen hasita. Hiru urteko epe hori igaro eta hautaketa-prozedura amaitu ez bada, dagokion euskal administrazio publikoaren edo entitate instrumentalaren organo eskudunak, arrazoiak emanda eta espresuki, hautaketa-prozesu horren garapena luzatu beharko du, amaitzeko behar den gutxienerako aldirako luzatu ere, eta helburu horretarako hartu behar diren neurriak zehaztu. Ezingo da hautaketa-probarik deitu karrerako funtzionarioek edo langile lan-kontratudun finkoek plazak bete ditzaten, plaza horien zuzkidura konprometituta ez badago enplegu publikoaren eskaintza edo antzeko edozein kudeaketa-tresnatan. Enplegu publikoaren eskaintza edo antzeko edozein kudeaketa-tresna urtero onartu beharko dute euskal administrazio publikoetako edo kasuan kasuko entitateetako organo eskudunak. Eta enplegu publikoaren eskaintzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren kasuan, eta dagokion lurralde historikoaren aldizkari ofizialean, foru- eta toki-administrazioen kasuan. Administrazio bakoitzaren egoitza elektronikoa ere argitaratuko dira. Nolanahi ere, hautaketa-prozesurako deia egin duen euskal administrazio publiko bakoitzak bere gobernu-organoen bitartez formalizatu behar ditu enplegu publikoaren eskaintzarako edo antzeko tresnetarako deialdi-egintzak, orobat ebazpen-egintzak, hautatutako hautagaiak funtzionario edo langile lan-kontratudun finko izendatzekoak.

Bizkaiko Batzar Nagusiek 2023. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 10/2022 FORU ARAUA onetsi zuten eta 2022ko abenduaren 30eko 248. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. 14. artikuluan 2023. urterako enpleguaren eskaintza publikoa arautzen du, eta honako hau dio: *“Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko pertsona titularrak edo, bestela, foru erakunde autonomiadunetako gobernu organoek proposatu eta gero, Foru Aldundiak, bere Gobernu Kontseiluaren bidez, enplegu publikoaren eskaintza edo eskaintzak onetsi ahal izango ditu, bai bere burua antolatzeke, bai bere erakunde autonomiadunak antolatzeke. 2. Giza baliabideen beharrezanek aurrekontuetan esleipena badute, baina ezin badira bete lehendik dauden langileekin, orduan beharrezan horiek betetzeko, enplegu publikoaren eskaintza egin ahal izango da”*.

Halaber, aipatu behar da 2023. urterako enpleguaren eskaintza publiko hau onestea arrazoitzen duten argudioen artean daudela administrazioa arrazionalizatzea, langileak finkatzea, enpleguaren ezegonkortasuna murriztea eta giza taldea egonkortzea.

Azken finean, enplegu publikoaren eskaintza administrazio-egintza bat da, eta administrazioaren beraren antolatzeke ahalmenen barruan kokatu arren, prozeduraren ikuspegitik, lehenik eta behin mahai paritarioan ezagutu eta negoziatu behar da, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37.1.l) artikuluekin eta Euskal Enplegatu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52.1 artikuluekin bat etorriz.

Erakundearen ordezkariak duten sindikatuek gaia ezagutu eta aztertu ahal izan dute negoziazio-mahaiaren bileretan otsailaren 22an, martxoaren 29an, irailaren 13an, azaroaren 2an, azaroaren



29an eta abenduaren 12an (2023ko 2, 3, 7, 8, 9 eta 10 zenbakiko aktak, hurrenez hurren). Hala, gai honen aurrekariari erantsi zaizkie. Horrez gain, xede berdinez prestatzeko komunikazio partikularrak egon dira. Puntu honetan, legezko mugara arte eskaintako plaza-kopuru guztiak definitzeaz gain, bere xedearen kategoriak zehaztu dira, eta berriaz aipatu da aurreko eskaintetakoak izateagatik honi gehituko zaizkiola baterako deialdia egiteko. Azkenean, aztergai den enplegu publikoaren eskaintza ELA, UGT eta SATSE sindikatuen adostasunarekin eta LAB sindikatuaren abstentzioarekin amaitu zen.

Azaldutakoaren ildotik, gai hau ebazteko eskumena Erakundeko Gobernu Batzordeak dauka, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Estatutuak aldatu dituen maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hori guztia dela eta, idazkia sinatzen duenak Gobernu Batzordeari hurrengoa proposatu dio:

ERABAKI-PROPOSAMENA

BAKARRA.- 2023. urterako Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko (GUF) enplegu publikoaren eskaintza onestea, eranskinak ezartzen duen baldintzetan.

Bilbo, 2023ko abenduaren 18a

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIORDEA

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA


Sin.: Alazne Rubio Terradillos


Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GERENTEA


Sin.: David Latxaga Ugartemendia



ERANSKINA

-|-

GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN (GUF) 2023KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA.

1. artikulua

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikuluan eta berorrekin bat datozenetan; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikuluan; 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 20. artikulua, batetik laugarrenerako paragrafoak; eta 2023rako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 10/2022 FORU ARAUAREN 14. artikuluan xedatzen dena betez, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Eskaintza onesten da, erabaki honetan ezartzen den eran.

2. artikulua

1. Honako plaza hauek sartzen dira Enplegu Publikoaren Eskaintzan: hala aurrekontuko zuzkidura eduki eta deialdi-prozesu batean ez dauden plaza hutsak nola aurrekontuko zuzkidura eduki eta bitarteko langileen edo aldi baterako langileen bitartez beteta dauden plaza hutsak, baldin eta plaza horietarako deialdia oraindik eginda ez badago. Guztira, 54 plaza dira; haietariko 37 txanda irekikoak dira, eta 17, berriz, barne-sustapeneoak. Erabaki honen eranskinean jasotzen dira plazen kuantifikazio ordenatua eta banakapena.

2. Aurrekontu zuzkidura eduki eta hautaketa-proben deialdietan betetzen ez direnak, ekitaldi bereko hurrengo deialdietara atera ahal izango dira; baina, deialdia egiten denetik sei hilabeteko epea amaitu aurretik hasi behar dira dagozkion probak, hautaketarako ezar daitezkeen prestakuntza ikastaroak alde batera utzita.

3. artikulua

1. Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legearen 74. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan jasotako zehaztapenak betez, euskal sektore publikoko enplegu publikoaren eskaintzetan kupo bat gordeko da, gutxienez deitutako lanpostu hutsen ehuneko zazpikoa, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten. Halakotzat hartuko dira indarreko legerian zehazten direnak, administrazio bakoitzeko langile guztien ehuneko bira iristeko. Enplegu publikora iristeko, izangai horiek hautaketa-prozesuak gainditu beharko dituzte, eta desgaitasuna egiaztatu beharko dute, bai eta desgaitasuna eta eginkizunak betetzea bateragarriak direla ere. Plazen erreserba hori dagozkien deialdietan banatuko da.



2. Honela egingo da plazen % 7ren erreserba: desgaitasun intelektuala edo mentala duten pertsonak beteko dute eskainitako plazen % 2 gutxienez; gainerako plazak, berriz, beste edozein desgaitasun mota dutenek beteko dituzte.

3. Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbaturiko plazak sarrera arrunteko plaza-deialdietan sartu ahal izango dira, edo aparteko txanda batean.

4. Desgaitasuna duten pertsonak gainerako hautagaien baldintza berberetan onartuko dira GUFEK deitutako hautaketa-prozesuetan.

5. Egiten diren hautaketa-prozesuetan, behar diren neurriak hartuko dira, hala eskatzen duten desgaitasuna duten pertsonentzat, denbora eta bitartekoen arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezar daitezzen, eta, prozesu horiek gainditu ondoren, behar diren egokitzapenak egingo dira lanpostuetan, desgaitasuna duten pertsonak beren zeregin profesionalak behar bezala bete ahal izan ditzaten.

6. Artikulu honen ondorioetarako, desgaitasuna duten langileak honakoak izango dira: Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1984ko martxoaren 8ko Aginduaren arabera egoera hori aitortuta dutenak, eta abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren arabera, organo eskudunen batek (IMSERSO, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila edo baliokideren bat) % 33ko edo gehiagoko desgaitasun maila aitortua dutenak.

7. Aurreko paragrafoetan adierazitako kasuetan, desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbaturiko plazak eskatzen dituzten hautagaiek honakoa egiaztatu beharko dute, organo eskudunek emandako ziurtagirien bidez: batetik, desgaitasun hori dutela eta, bestetik, eskatutako plazetan egin beharreko lanak eta eginkizunak egiteko gaitasuna dutela.

4. artikulua

1. Eranskinean berariaz horretarako jasotako plazak eskainiko dira barne-sustapenean, eta plaza horiek kopurua ez da kontuan hartuko baliabideen birjarpen-tasaren ondoriozko plazen gehieneko mugaren barruan. Bizkaiko Foru Aldundiko eta beraren erakunde autonomoetako lan-kontratudun langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren testu bateginaren 103.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, gutxienez plazen % 33koa eta gehienez % 50ekoa izango da barne-sustapenean deitutako plazen erreserbaren ehunekoak.

2. Barne-sustapenerako erreserbatutako plazak betetzeko, deialdi bateratu bat egin ahal izango da sarrera arrunteko plazekin batera, edo, bestela, beste deialdi bat, txanda independente batean.

3. Barne-sustapenez sartzeko, kasu bakoitzaren deialdian ezarritako probak gainditu behar dira.

4. Barne-sustapenerako erreserbaturiko plazaren bat hutsik geratzen bada, plaza horiek txanda irekiko plazei gehituko zaizkie.



5. artikulua

1. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen XIII. tituluan ("Hizkuntza Normalizazioa") eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutakoa betetzeko (aipaturiko 6/1989 Legearen 187. artikulua eta berorrekin bat datozenak dekretu horretako 27. artikulua lotuz), eta kontuan hartuta enplegu-eskaintza plazak deitzeko dela eta ez zuzenean lanpostuak deitzeko, egun lanpostuen hizkuntza eskakizunak lanpostuen zerrendetan adierazita daudela eta Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek epealdi honetan dagoeneko onartu diren lanpostuei buruz emandako txostenekin bat datozela.

2. Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten plazetan, hizkuntza eskakizuna nahitaez bete behar da plazara sartzeko, eta egiaztapena deialdiaren oinarrietan zehaztutako eran egingo da.

3. Eskainitako gainerako plazetan, euskararen ezagutza merezimendutzat joko da eta, beraz, puntuazioan ehuneko bat lortzea ekarriko du. Ehuneko hori ez da inola ere hautaketa-prozesuaren gainerako probetan guztira gehienez lortu daitekeen puntuazioaren ehuneko bost baino txikiagoa izango, ezta ehuneko hogeitau bost baino handiagoa ere, honako eskala honen arabera:

- 1. HE % 5etik % 10era
- 2. HE % 5etik % 10era
- 3. HE % 11tik % 20ra
- 4. HE % 11tik % 20ra

Edozein kasutan, baremazioaren ehunekoa berdina izango da kategoria profesional bereko plaza guztietarako; horretan nagusi den hizkuntza eskakizunaren arabera ezarriko da ehuneko hori.

6. artikulua

Hautaketa-prozedurak modu arrazionalizatuan eta eraginkorrean egin daitezten, 2023. urteko enplegu publikoaren eskaintza honetako plaza batzuk metatu ahal izango dira, hala badagokio, GUFEk 2021eko eta 2022ko urteetako enplegu publikoaren eskaintzetan eskainitako antzeko plazekin, egiten diren deialdi berezietan sartuta; beraz, baliteke enplegu publikoaren eskaintza guztiak aldi batera gauzatzea, hautaketa-prozesuaren deialdi bakar baten bidez; deialdi horretan eskaintza horietako plaza huts guztiak eskainiko dira.

AZKEN XEDAPENA

Erabaki honek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeari kalterik egin gabe.



-II-

BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN (GUFE) 2023KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

Plaza kodea	Plazaren izena	Lanpostu hutsen kopurua	Txanda irekia		Barne-sustapena		
			Derrigorrezko HE	Derrigorrezkoa ez den HE	Derrigorrezko HE	Derrigorrezkoa ez den HE	
360	BILTEGIKO ARDURADUNA	1	1				
421	GIZARTE-HEZITZAILEA	4	3			1	
444	GIZARTERATZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	2		1		1	
550	OSASUN-LAGUNTZAILEA	21	9	3		6	3
640	MANTENTZE-LANETAKO ATEZAIN LAGUNTZAILEA	3	1			1	1
650	MANDATARIA	5	2	1			2
740	SUKALDEKO LAGUNTZAILEA	3	1	2			
710	SUKALDARI-ZERBITZARIA	1		1			
720	ZERBITZARI-GARBITZAILEA	11	8	3			
810	ADMINISTRARIA	3	1			2	
	GUZTIRA (*)	54	26	11		11	6

(*) Desgaitasuna duten pertsonak betetzeko diren plaza hutsen erreserban, lau (4) plaza sartuko dira; plaza horiek – hala egin behar bada– dagozkien deialdien artean banatuko dira.